

Albistegia



EDITORIALA

Kaixo irakurle maitagarri guztioi. Apurka-apurka aurrera goaz eta berriz hementxe duzue Herri Berri aldizkariaren bigarren alea.

Albistegi honetan urtarrila, otsaila eta martxo hilabetei dagokien informa-

zioa ekartzen dugu.

Oraingo alean gauza oso interesgarriak datoz. Beraz, oso ondo irakurri eta Busturian gertatutako gauzaz enteratuko zarete.

Ekainean izango duzue esku artean hurrengo albistegia, bitartean on egin eta ongi pasa!

Albistegi hau esku-ragarri izango duzue honako web gune honetan: www.galeon.com/uzelai.

**Espero dugu
zuen gustu-
koa izatea!**

Eguen Zuri Eguna

5. MAILA

Eguen zuri eguna otsailaren 7an arratsaldean ospatu genuen.

Lehenengo bi lekutara abestera joan ginen, ondoren futbol zelaian andereñoek

prestatutako txistorrak jan genituen.

Jan ostean jolasten egon ginen.

Lauretan eskolako atean gurasoek entzuteko abestu genuen.

**OTSAILAREN
7AN EGUEN ZU-
RI OSPATU GE-
NUEN**

Aurkibidea:

Editoriala	1
Eguen Zuri	1
Santa Ageda	2
Basatuste	2
lhauteriak	2
Padura, postatrukea, 2-3 urte eta zuhaitz eguna.	3
3-4 urte, Sukarrietako txaletak eta San Blas.	4

URTEBETETZEAK

Hiruhilabete hauetan Busturiko eskolan ume hauen urtebetetzeak ospatu ditugu: Izaskun Hormaetxea, Aritz Zabala, Josu Andoni Uriagereka, Jon Zearreta, Jon Aguirre, Irene Rodriguez, Maria Apraiz, Maitane Cendagortagalarza, Borja Chertudi, Ainhoa Mintegui, Garazi Zarraga, Nagore Nuñez, Jorge Rodriguez, Olaia Zaldia eta Ander Zarraga.

Etxe guztiak kantuz pozten Santa Ageda bezperan

4.MAILA

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, goizeko 9:30etan Jose Maria Uzelai Ikastetxeko ikasleok baserritarrez jantzita eta makila eskuan, Santa Ageda koplak abestera irten ginen Busturiako kale eta herriko aharren egoitzetan.

Abesten genuen bitartean batzuk, poltsa eskuan, etxerik etxe eskatzera joan ziren. Jendeak karameloak eta dirua ematen zizkigun.

Basatuste ospatzen

3.MAILA

Garizuma inguruan ospatzen diren jaien artean, ihauteriak, basatuste... ditugu. Gure herrian Basatuste eguna ospatzen dugu. Beste herri batzuetan basatoste, basatuste ... bezala ere ezagu-

tzen da. Ihauterietako domekaren aurreko domekan ospatzen da. Aurton otsailaren 3 an ospatu behar zen, Baina San Blas eguna zenez urtarrilaren 27an ospatu zen . Egun horretan jendea Altamiran

elkartu zen 11etan, meza ostean, eta gero Parisira joan ziren oinez. Parisin, meza amaitu ondoren eta ohiturari jarraituz txistorra jan zen.

Ihauteriak eskolan

4. MAILA

Otsailaren 12an ihauteriak ospatu genituen eskolan. Haur Hezkuntzako umeak, lehenengo eta 2. mailakoak sorginez mozorrotu ziren. 3. eta 4. mailako ikasleok pirataz mozorrotu ginen. 6.eta 5. mailakoek "Hemendik At"-en dantza bat egin zuten.

Gero Jinn Jazzko dantza bat egin genuen, Shakirarena izan zen.

Azkenean gurasoek prestatutako txokolatada egon zen.

Urdaibaiko padura - San Kristobal

5. Maila

Otsailaren 26an 3, 4, 5 eta 6.mailako ikasleok Urdaibaiko padura ikustera joan ginen.

Jonek ondoko hau azaldu zigun: Kantauri kostaldean bi padura geratzen dira, bata Santoñakoa eta bestea Urdaibaikoa.

Padurak hiru ezaugarri ditu: basatza, ura eta landareak.

Padurako ura gazi-geza da, itsasoko ur gazia eta erreketako ur geza nahasten baitira.

Paduran bizi diren landareak oso bereziak dira ur gazi-gezetan bizi eta batzutan urperatuta geratzen direlako, horregatik goma modukoak dira.

Padurako landare bat Lezka da. Honen hiru metro inguruko luzera du, eta ez du hartzen ur gazi-geza baikik eta ibaietatik datorren ura.

Padurako landare batzuk desageritzeko arriskuan daude landare inbasoreak heldu direlako; haien artean plumeroak, Hego Amerikatik ekarritakoa. Landare hauek desager-

tzeak bertan bizi diren hegaztiak arriskuan jartzen ditu.

Paduran zuhaitz asko ikusi genuen, haien artean sahatsa. Haei lehenengo lore arrak irteten zaizkio, gero emeak eta azkenean hostoak ikasi genuen. Han hegazti asko ere ikusi genuen: txirtak, hegabera, uroiloak, lertxoin zuria, karioak, antxetak ...

Honetaz gai, Jonek gauza bitxi bat irakatsi zigun: txori motak batek barraskiloak hartu eta harkaitz baten ertzaren kontra joz, maskorrek apurtzen ditu barraskiloak jateko. Harri horri ingudea deritzo.

Irteera hau oso interesgarria iruditu zitzaigun.

Postatrukea

1. Eta 2. MAILA

Otsailatik ekainararte eskutitzak bidaliko dizkiegu Muxikako lagunei. Guk ere beraienak jazoko ditugu. Eskutitzen bitartez euren izenak eta jolasak ezagutuko ditugu.

Zuhaitz eguna

6. MAILA

Busturian martxoaren 2an zuhaitzaren eguna ospatu zen. Goizeko 10etan Sukarrietako koloniaren sarreran udalako langile batzuk, eskolako ikasleak, trikitilariak eta boluntario


asko elkartu ginen.

Zuhaitz mota bakoitzeko 50 zuhaitz zeuden.

Eskolako ikasleok 15 zuhaitz landatzeaz gain, boluntario eta langileen laguntzarekin beste 25.

Haur Hezkuntza

2 eta 3 urte



(PSIKO-GELAN JOLASTEN DUGU)



**JOSE MARIA UZELAI
IKASTETXE PUBLIKOA**

Altamira 37
48350 BUSTURIA

Telefonoak: 946870905-
946871803
Fax: 946870905

Email: uzelai@teletel.es
014230aa@hezkuntza.net

IIKUS EZAZUE GURE WEB
ORRIA



[Www.galeon.com/uzelai](http://www.galeon.com/uzelai)

San Blas Eguna Axpen

6.MAILA

Otsailaren 3an Axpen San Blas eguna ospatzen da. Egun horretan 11etan mezatara joaten da.

Han kordelak bedeinkatzen dira. Aurton hainbat koloretakoak egon dira: Arrosa, urdina, morea, more iluna eta berdea. Egun honetan ohitura denez, tabernetan pintxoak doanik ematen dira denontzat. Arratsaldeko 5etan asto probak egon dira, zortzi astoek parte hartu dute.

Bedeinkatutako kordelak hausterre-gunean erre egin behar dira.

Sukarrietan eraikitzen ari diren txaletak

6.MAILA

Sukarrietan hamahiru txalet unifamiliarrak egiten ari dira. Munitizeko auzoan hamairu txalet egiteko prestaketak egiten ari dira: eraikitzeko orubea berdintzen ari dira, zuhaitzak moztzen eta lekuz aldatzen. Hori posible izateko hango auzoko batek lurra saldu zien. Txaletak errepide alboan kokatuta egongo dira.

Haur Hezkuntza

4 eta 5 urte

EMENG AUDE GUE GELAN
HEMEN GAUDE GURE GELAN
IPUENAK IRAURE
ASKO GUSTATZEN IRAURTZEN
ZAFELU.